

## DIAGNOSTIKOAREN ADIBIDEA | HIZKUNTZEN IKAS-IRAKASKUNTZA ANTOLAMENDURAKO ERABILTZEN DIREN HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK

### 7.1.1. Ikasleak taldekatzeko irizpideak (Haur eta Lehen Hezkuntza)

Zer irizpide hartzen dira kontuan ikasleak taldekatzeko orduan? Kontuan izaten da ikaslearen lehen hizkuntza? Eta atzerriko hizkuntza? Erabiltzen diren irizpideak eta hauen zergatia azaldu.

*Erabiltzen diren irizpideak egokiak dira? Zerbait aldatu beharko litzateke?*

Zer egiten dugu?	Zer hobetu behar dugu?
Erabiltzen ditugun irizpideak ikastetxean beste kasuetan erabiltzen direnak dira. Irizpideak ez dituzte ziklo bakoitzeko irakasleek erabakitzen, maila orokorreko erabakiak dira. Irizpidea izan da euskara lehen hizkuntza duten ikasleak talde batean jartzea eta beste taldean lehen hizkuntza gaztelania dutenak. Ingelesari edo hirugarren hizkuntzari dagokionez, kontuan izan behar da beste hizkuntzarik ezagutzen duten. Irizpidea da hirugarren hizkuntza ikastetxetik kanpo indartzen dutenak beste talde batean jartzea.	Ez dugu argi zein izan daitekeen taldekatzeko irizpiderik argiena. Berraztertu behar ditugu ikasleak taldekatzeko hizkuntza-irizpideak .

Badago ikastetxean sisteman sartzen diren ikasle berrientzako Harrera Planik? Talde batean edo bestean jartzeko, hizkuntza kontuan izaten da?

*Egiteko modua egokia da? Zerbait aldatu beharko litzateke? Harrera Plana egin edo berregin beharko litzateke?*

Zer egiten dugu?	Zer hobetu behar dugu?
Ikastetxean harrera plana izaten dugu kontuan. Taldekatzeko orduan, ez dugu hizkuntza kontuan izaten, baina uste dugu irizpide egokia izan daitekeela.	Ikasle etorri berri bakoitzari zuzendutako banakako harrera plana egin behar zaio. Bakoitzaren egoerari egokitu behar zaio, ezberdinak baitira.

Ikasleen aniztasunari begira, hizkuntzarekin lotutako antolamendurako neurri berezirik hartzen da? Indartze-neurrietan? Ikasle etorri berriekin? Premia berezietako ikasleekin?

*Hizkuntza kontuan hartzen da? Era egokian? Zerbait aldatu beharko litzateke?*

Zer egiten dugu?	Zer hobetu behar dugu?
Zuzendaritza taldeak erabaki behar ditu antolamendurako neurri egokiak eta aldaketak proposatu egoera bakoitzean. Indartze orduak ordutegiak aldatzen dituzte eta, askotan, irakasleen nahiaren arabekoak dira. Premia berezietako ikasleek taldekatze ezberdinak dituzte eta errazagoa da hauen ordutegiak kudeatzea. Ikasle etorri berriek ez dute askotan laguntzarik (HIP) jasotzen (etortze dataren arabera) eta irakasleek hartu behar dute lan hau bere gain. Hezkuntza Sailak gai hau argitu beharko luke.	Gai hauen aurreko ekintza protokoloa egin beharko litzateke. Zikloen arteko batzordea datorren ikasturte hasierarako protokoloa egiten saiatu beharko litzateke.